

2022/2023 ikasturtea

Gradu-amaierako lana

**HAURRETAN ANBLIOPIA ANTZEMATEA ETA ZUZENTZEAREN
INGURUKO OSASUN HEZIKETA PROGRAMA.**

MAIALEN BARO BABIANO

LABURPENA:

Sarrera: ikusmen-funtzioa ez burutzeak edo murrizteak minusbaliotasun larria dakar, eta horrek zailtasun handiak eragin ditzake pertsonen ikasteko gaitasunean eta harreman sozialean. Ikusmen-garapen normal baterako, beharrezkoa da garunak irudi fokalizatuak eta argiak jasotzea, baina erretinako irudia begietako batean distortsionatuta badago, garuneko irudi kortikala desberdina izango da, eta, beraz, garunak irudi ez hain argia ezabatuko du, begi horretan anbliopia sortuz. Anbliopia haurtzaroan ikusmen txarraren kausa ohikoena da, eta detekzio goiztiarra funtsezkoa da; izan ere, anbliopia oharkabean pasatzen bada edo bizitzako lehen sei urteak igaro ondoren tratatzen ez badute, anbliopie den begiko ikusmena ezin berrezartzea gerta liteke. Osasun publikoko arazo garrantzitsua da, izan ere, anbliopiaren prebalentzia urteak igaro ahala, geroz eta altuagoa da. Beraz, beharrezkoa da honen detekzio goiztiarra betetzea, eta erizaintzak funtzio garrantzitsua du hemen, detekzioan asko lagun baitezake.

Helburua: Gipuzkoako erizainak osasun heziketaren bidez haurretan anbliopia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea.

Metodologia: proiektuan zehar erabili den informazioa eskuratzeko, bilaketa bibliografiko sistematizatua burutu da datu-base ezberdinetan, PIO egitura eta osasun-zientzietako deskribatzaileak, MeSH, DeSH eta hitz-gakoak erabiliz.

Plangintza: programa honetan helburu pedagogiko eta programatutako jarduera batzuk planteatu dira, hezkuntza-edukiekin, estrategia metodologikoekin eta antolamendu, material eta giza baliabideekin, helburuak lortu nahian. Gainera, programaren egiturari, prozesuari eta emaitzei dagozkien ebaluazio-tresnak ere planifikatu dira.

Ekarpen pertsonala: ezjakintasuna eta prestakuntzarik eza dira anbliopiaren intzidentziak gora egiteko arrazoi nagusienetariko bat. Horregatik, osasun programak eskaintzea egokia da intzidentzia txikiago batera iristeko. Gainera, modalitate hau lantzeak pedagogiaren eta hezkuntzaren munduan murgiltzeko aukera ona izan da niretzat, Osasun Heziketako programa baten atalak prestatzeko trebetasunak eskuratuz, justifikaziotik hasi eta ebaluaziora arte, helburuen formulaziotik edo teknika pedagogikoen planteamendutik igaroz.

HITZ GAKOAK: anbliopia, ikusmen-nahasmendua, erizain zainketak, prebentzioa, kontrola, heziketa.

Aurkibidea:

1. SARRERA.	1
1.1 GAIAREN DEFINIZIOA.	1
1. irudia: Estereograma.	3
2. irudia: Optotipo mota ezberdinak.	4
3. irudia: Erreflexu gorriarekin ager daitezkeen emaitzak.	5
1.2 ARRISKU FAKTOREAK.	8
1.3 PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA.	8
4. irudia: Osakidetza erakundearen osasun zerbitzuen kostu efektiboa urteetan zehar.	10
1.4 DIANA TALDEA.	10
5. irudia: PSI-an 3 urteko haurrei pediatriako eta erizaintzako kontsultan egiten zaizkien prozedurak.	11
2. HELBURUAK.	11
2.1 HELBURU NAGUSIA.	11
2.2 BIGARREN MAILAKO HELBURUAK.	12
3. METODOLOGIA.	12
1. taula: PIO egitura eta osasun-zientzietako deskribatzaileak.	12
2. taula: Datu-base elektronikoetako bilaketa estrategiak eta emaitzak.	13
3. taula: Erabili diren beste web orri eta baliabide batzuk.	14
4. PLANGINTZA.	15
4.1 DIANA TALDEA.	15
4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK.	15
4.2.1 HELBURU NAGUSIA.	15
4.2.2 BIGARREN MAILAKO HELBURUAK.	16
4.3 METODOLOGIA PEDAGOGIKOA.	16
4.4 JARDUEREN PROGRAMA.	17
4.4.1 KRONOGRAMA.	17
4. taula: Saioen kronograma.	18
4.4.2 HEZKUNTZA EDUKIAK.	19
5. taula: Saioen antolaketa.	20
4.4.3 BALIABIDEAK.	22
4.5 EBALUAZIOAREN PLANGINTZA.	23
5. EKARPEN PERTSONALA.	23
6. BIBLIOGRAFIA.	24
7. ERANSKINAK.	28
1. Eranskina: Osasun Heziketa programaren inguruan informatzeko aurkezpen-gutuna.	28
2. Eranskina: Osasun Heziketa programaren posterra.	29
3. Eranskina: Osasun Heziketa programaren triptikoa.	30
4. Eranskina: Osasun Heziketa programaren informazioa bidaltzeko mezu elektronikoa.	31
5. Eranskina: Osasun Heziketa programan izen-emate zerrenda.	32
6. Eranskina: Osasun Heziketa programaren parte-hartzaileen baimen informatua.	32
7. Eranskina: Osasun Heziketa programaren parte-hartzaileen konfidentziasun konpromezua.	33
8. Eranskina: Gaiaren inguruko ezagutzak eta gaitasunak identifikatzeko online galdetegia.	33
9. Eranskina: Ebaluazio galdetegia.	34

1. SARRERA.

1.1 GAIAREN DEFINIZIOA.

Ikusmena gizabanakoa inguratzen duen testuingurua hautemateko gaitasuna da, begietan eragiten duten argi-izpien interpretazioaren bidez. Komunikazioarekin eta gizarte-harremanekin lotura handiena duen zentzumen-trebetasuna da. Beraz, ikusmen-funtzioa ez burutzeak edo murrizteak minusbaliotasun larria dakar, eta horrek zailtasun handiak eragin ditzake pertsonen ikasteko gaitasunean eta harreman sozialean. Ikusmenaren alterazio nagusien artean nabarmentzekoak dira estrabismoa, anbliopia, errefrakzio-akatsak, diskromatopsiak eta fusioaren alterazioak. Horien guztien artean, anbliopia alterazio ohikoena da (1).

Anbliopia hitza grekotik dator, *ambl* (ahula) + *ops* (begia) hitzetatik. Honela definitzen da: ikusmen-zolitasunaren murriztea, ikusmen-zentzumenaren garapenean sor daitezkeen alterazioek eraginda (2). Begi lausoa edo begi nagiaz ere ezaguna, normalean begi batean gertatzen den ikusmen arazo bat da. Begiaren eta garunaren arteko elkarlanean egoten da arazoa. Begiek irudia hauteman eta garunari estimulu bat bidaltzen diote hau antzemateko eta ondo ikusteko. Normalean begi biek irudiaren estimulu zuzena bidaltzen dute, baina begi batek estimulu hori oker edo ahul bidaltzen duenean, garunak ez du estimulu hori antzematen eta ez du begi horrekin lanik egingo. Denborak aurrera egin ahala, begi horrek indarra galtzen du eta ahuldu egiten da, beste begiari, osasuntsuari, indarra emanez eta menderatzaile bihurtuz (3,4,5).

Ikusmen-garapen normal baterako, beharrezkoa da garunak irudi fokalizatuak eta argiak jasotzea, baina erretinako irudia begietako batean distorsionatuta badago, garunak akats gisa jasoko du eta, beraz, garunak irudi ez hain argia ezabatuko du, begi horretan anbliopia sortuz (1,2). Neurogarapenaren nahasmendutzat hartzen da, hau da, anbliopia irudia sortzeko begiak garunari bidaltzen dion estimulua inhibitzearen ondorioa da. Adin tarte kritikoa sei urtera arte izan ohi da, eta eragilea estimulu zuzenak ez jasotzea, faktore genetikoa edo gaixotasunen bat izan daiteke (2).

Anbliopia bi motatan sailka daiteke: anbliopia funtzionala eta anbliopia organikoa (6-9):

- Anbliopia funtzionala: eragile patologikorik gabeko ikusmen-zolitasunaren gutxitzea edo galera da. Jaiotzean ikusmenak zuzen funtzionatzen du baina garapenean akatsen bat agertzen bada, anbliopia sortuko litzateke. Honen barruan aurki ditzakegu:
 - Anbliopia estrabikoa: begiak ikusmen-ardatz berdinean kokatuta ez daudenean sortzen den anbliopia mota da. Estrabismo gisa ezagutzen da, eta anbliopia eragile nagusizat jotzen da. Garunak desbideratuta dagoen begiaren estimulua ezabatzen du.
 - Anbliopia errefraktiboa: Errore errefraktibo esanguratsu baten ondorio da, hau da, errore bat dago urrutiko irudiak fokuratzekoan.
 - Anbliopia mistoa: anbliopia estrabikoa eta errefraktiboa aldi berean jazoten dira.
- Anbliopia organikoa: patologia edo lesio batek eragiten duen ikusmen-zolitasun galera da. Gabeziagatiko anbliopiatzat ezagutzen da, garunak jasotzen duen irudia bere osotasunean ikusten ez duelako eta ondorioz, begi honen ikusmen estimuluak alde batera uzten ditu. Kausa ohikoenen artean sortzetiko katarata, ptosia, kornea-distrofiak eta beira-opakutasuna daude.

Anbliopiaren zeinu edota sintomak antzematea nahiko zaila izan ohi da. Haurren adina dela eta, normalean ez dira gertatzen zaiona esateko gai. Dena den, ohiko sintomak ikusmen lausoa, buruko mina, dipopia edo ikusmen bikoitza eta gehiegizko kliska dira (3-5).

Aldi berean, anbliopia duten hurrek sakontasunaren pertzepzio eskasa izan dezakete, hau da, arazoak dituzte objektuen gertutasuna edo urruntasuna jakiteko. Zeinu hauei esker, erizain zein gurasoek antzeman lezakete haurrak zailtasunak dituela argi ikusteko edo fokuratzeko, hala nola (9,10):

- Begiak erdi ixtea fokatu ahal izateko.
- Ikusmen txarra duen begia ixtea.
- Burua ondo ikusten duen aldera okertzea.

Anbliopia haurtzaroan prebenitu daitekeen ikusmen arazoek kausa ohikoenetakotzat hartzen da, eta garaiz tratatzen ez bada, helduaroan ere iraun dezake (7). Kasu askotan, gurasoek ez dakite beren semeak anbliopia duela osasun profesional batek begien

azterketa bidez diagnostikatzen duen arte. Horregatik, garrantzitsua da haur guztiei begietako azterketa bat egitea gutxienez 3 eta 5 urte bitartean (11,12).

Ikusmen arazoaren detekzio goiztiarra erizainak eta pediatriak egin ohi du. Horretarako hainbat metodo diagnostiko erabili behar dira, hala nola, Bruckner testa (erreflexu gorria), Hirschberg-en testa, Cover testa, ikusmen-zorroztasuna optotipoekin, eta ikusmen-test estereoskopikoa (Lang edo TNO testa). Egiten diren lehen diagnostikoak TNO testa eta optotipoena dira, erizainek beraien kontsultan burutzen dituztenak, eta erreflexu gorria pediatriarekin batera. Proba hauetariko batean susmoren bat izanez gero, pediatriako kontsultara bidaltzen da haurra, eta bertan Hirschberg-en testa eta Cover testa egingo zaie. Zeozer agertuz gero, espezialistarengana bideratu beharko da haurra (2,8,13,14).


Jarraian, erizainek burutzen dituzten diagnostiko goiztiarrentzako test bakoitza nola egiten den azalduko da. Lehenengo ikusmen-test estereoskopikoa egiten zaie, ondoren optotipoak erabiltzen dira ikusmen-zorroztasuna aztertzeko, eta susmoren bat egonez gero, pediatriari abisua pasako zaio erreflexu gorria egiteko (13):

1. Ikusmen-test estereoskopikoa, Lang testa edo TNO testa: Estereograma bi dimentsioko marrazki bat da, hiru dimentsioko irudi birtual bat ezkutatzen duena, eta bi begiak zuzen erabiltzen baditugu soilik ikus daiteke (*ikusi 1. irudia*). Haurrak, betaurreko polarizatuak erabiliz, zenbat objektu ikusten dituen adierazi behar du; izan ere, irudi batzuk begiek modu koordinatuan lan egiteko gaitasuna dutenean soilik identifika daitezke. Irudi gehiagorik ikusten ez badu, anabliopiaren seinale izan daiteke.




1. irudia: Estereograma.

- Ikusmen-zorroztasuna optotipoekin: Optotipoak pazientearengandik 3 metrora jartzen diren poster homologatuak dira, letra, zenbaki, irudi edo sinbolo desberdinekin (*ikusi 2. irudia*). Metodo honen bidez, haurrak zuzen identifikatu behar ditu linearen optotipo gehienak, bere adinaren arabera igarotzeko gai izan behar duenarekin bat datozenak. Proba honi esker, haurraren ikusmen-zolitasun balorea jakingo da. Haurra deribatua izango da optotipoen erdia baino gehiago identifikatzen ez duenean.



2. irudia: Optotipo mota ezberdinak.

- Bruckner testa (erreflexu gorria): anbliopia estrabikoa detektatzeko erabiltzen da, azkenean, estrabismoaren seinale dagoen edo ez adierazten du, anbliopiaren eragile nagusia baita. Horretarako, argia ateratzen duen oftalmoskopioa edo argia duen boligrafo bat erabiliz, argia bi begien artean kokatzen da eta bi begiak aztertzen dira (*ikusi 3. irudia*). Begiak zentratuta badaude eta ikusmenean akatsik ez badago, bi begietan isla simetrikoa izango da forma eta kolore aldetik.



3. irudia: Erreflexu gorriarekin ager daitezkeen emaitzak.

Haur anablopeen %73 eta %90-en artean ikusmen-zorroztasuna hobetzen du. Tratamenduaren oinarria begi anablopearen ikusmen-estimulazioa handitzea da, begi dominantearen ikusmen ahalmena oztopatuz betaurreko zuzentzaile, adabakia bidezko oklusioarekin, atropinarekin edo Bangertenen iragazkien bidezko penalizazio optikoarekin (4,6,8,15-19).

Gehien erabiltzen diren tratamenduak betaurreko zuzentzaileak eta adabakia dira, arrakasta-tasa % 49 eta % 87 artekoa baita (12). Normalean biak batera erabiltzen dira. Anblope den begiak irudiak ikusteko eta enfokatzeko behar dituen dioptriak eskainiko dizkio betaurrekoak, eta adabakia, aldi berean, anblope den begia lana egitera behartzen du, begi dominantea estaltzen baitu. Anblopia oso arina denean, begi gainean adabakia jarri beharrean Bangertenen iragazkia betaurreko kristalean itsasten dira, eta funtzio bera du (4,6,8,15-19).

Bestalde, Atropina %1-ean ere erabiltzen da, kolirio gisa, astean bi egunetan zehar tanta bat botatzen da begi osasuntsuan, eta honen ikusmen ahalmena ahultzen du, eta garunak begi anblopea erabiltzera behartzen du, honen ikusmen-ahalmena indartuz. 1-2 hilabetera baloratzen da tratamendu honen efektibitatea (4,6,8,15-19).

2017 urtetik aurrera, teknologia berrien garapenarekin, ikusmen-terapia konbentzionalerako software ugari sortu dira, adibidez, bideojokoak (8). Entrenamendu dikoptikoak eta pertzepzio-ikaskuntzakoak dira, eta emaitza onak lortu dituzte. Bideo-jolasaren tratamendua begi osasuntsuan ikusmen-estimulua etetea oinarritzen da, begi anbliopearen ikusmen-garapena estimulatzeko. Horretarako betaurreko anaglifoak erabiltzen dituzte. Betaurreko hauek, iragazki gorria eta berde/urdina dutenak dira. Kolore gorriko iragazkia begi anbliopean kokatzen da, eta begi osasuntsuan kolore berdea/urdina. Ikuspegi-aldaketa txandakatzeko trebetasuna hobetzea du helburu. Begiek berez errazago enfokatu dezakete kolore berdea, kolore gorriarentzat aldiz, enfokatzeko lan handiagoa egin behar dute. Erabiltzen diren jolasohikoenak Tetris eta Dig Rush dira (8,18,20).

Tetrisean, pantailaren goiko aldetik forma ezberdineko eta kolore berde/urdineko pieza erortzen joaten dira eta beheko aldera iristen direnean gorrira aldatzen dute kolorea, modu horretan, begi osasuntsuak erortzen doazen pieza ikusiko ditu, eta begi anbliopeak beheko pieza gorriak ikusiko ditu. Modu horretan, begi bakoitzak nunbaiten enfokatu beharko du eta biek lan egin beharko dute (8,18).

Dig Rush jokuan, pantailan kolore gorriko bi meatzari agertzen dira, eta urdin/berde koloreko urrea aurkitu eta orgara eramane behar dute. Noizbehinka, gorri koloreko su bolak agertzen dira eta hauek saihestu behar dituzte. Begi anbliopeak kolore gorria bakarrik ikusten du, eta estimulu gehiago jasoko ditu geroz eta gehiago lantzeko (8,20).

Teknologia beharra ez duten jokuak ere badaude, etxean zein ikastolan egin daitezkeenak: arkatx flexioa, irakurtzea, margotzea, eskulanak eta mahai jokuak (21,22):

- Arkatx flexioa: ariketa honetarako arkatx, margo edo boligrafo bat erabili behar da, marrazki edo letrak dituen. Begi osasuntsuak adabakia jarrita izan behar du, eta arkatza anbliope den begi aurrean jarri behar da. Besoa luzatuta arkatza begira gerturatu behar du motel, sudurra ukitu arte. Egunean hiru saio bost errepikapenekin egin behar dira eta lortu behar dena arkatzean dagoen marrazki edo letra geroz eta hurbilago egotean, hobeto ikustea da.
- Irakurtzea: begi osasuntsuan adabakia erabiliz, egunero irakurtzeak asko laguntzen du anbliopearen zuzenketan. Era berean, estresa murrizten laguntzen

du, hiztegia handitzen du, kontzentrazioa areagotzen du, narriadura kognitiboa atzeratzen du eta enpatia garatzen laguntzen du.

- Margotzea: hurrei asko gustatzen zaie koloreztatzea, motibatzaile egokia izanda begietako ariketak egin ditzaten. Haientzat erakargarriak diren irudiak aukeratzea egokia litzateke, eta adabakia erabili beharko lukete.
- Eskulanak: hurrek begi lausoa lantzeko beste modu bat eskulanak dira, hala nola mozketak, itsasteak, joskintza, aleak harian sartu... Jarduera hauek sormena, kontzentrazioa, begia-eskua koordinazioa eta mugimen-trebetasuna garatzen laguntzen dute.
- Mahai jokuak: begi nagirako egokiak diren mahai-jokoak daude, ikusmen-zorroztasuna lantzea eskatzen baitute. Horien artean buruhausgarria, puzzlea eta memoriakoak daude. Beti adabakia erabili behar da.

Bestalde, ikusmena zaintzeko hainbat gomendio aholkatzen dira (23):

- Ondo elikatzea: fruta eta barazkietan aberatsa den elikadura egokia litzateke, frutek eta barazkiek bitamina eta mineral asko baitituzte begiak eta ikusmena osasuntsu mantentzeko.
- Pantaila baten aurrean igarotzen den denbora mugatzea: pantaila aurrean denbora asko pasatzeak ikusmen arazoak okerragotu ditzake. Egunero pantaila baten aurrean ematen duen denbora mugatzea eta edozein gailu digital erabiltzen duenean, haurra atsedean hartzea lagungarria izango da bere ikuspegia babesteko.
- Behar adina lo egitea.
- Kanean denbora pasatzea: ume askok egunero orduak pasatzen dituzte gertutik ikustea eskatzen duten jarduerak egiten. Gorputzeko beste muskuluek bezala, begietako muskuluek denbora behar dute erlaxatzeko. Kanpora irteteak urrutiko objektuak ikusteko aukera ematen die begiei, eta horrek ahalegina eta nekea berreskuratzeko aukera ematen die.
- Eguzki-lenteak erabiltzea: Eguzkiaren izpi ultramoreen eraginpean egoteak denbora luzez begiak kaltetu ditzake.
- Aldizkako begietatik azterketak egitea, erizaintzako eta pediatriako kontsultara joatea eta dagozkion azterketak egitea.

1.2 ARRISKU FAKTOREAK.

Estrabismoa, anbliopia estrabiko gisa ere ezaguna, anbliopiaren garapenaren arrazoi nagusia da, kasuen %30-50-ean gertatzen baita. Begi desbideratu bat dago, irudiak fokutik kanpo jasotzen ditu eta garuna ez da gai irudi hori enfokatzeko ezta ikusteko, eta begiak indarra galtzen du, ikusmen ahalmeta galduz (1,2).

Anbliopia eragin dezaketen begietako beste afekzio batzuk errefrakzio-erroreak, horien artean miopia (urrutitik ikusteko zailtasuna), hipermetropia (hurbiletik ikusteko zailtasuna) eta astigmatismoa (ikusmen lausoa eragin dezakeena) daude, betaurrekoekin edo ukipen-lenteekin erraz konpon daitezkeenak; eta kataratak dira, irudi lausotua eragiten du begi afektatuan baina kirurgiarekin erraz zuzen daiteke. Hala ere, tratamendurik gabe utziz gero, burmuina ikusmen indartsuena duen begiaren mende egon liteke (3,4,5).

Anbliopia izateko aukera handitu dezaketen beste baldintzak korneako edozein opakutasun, kristalinoa, umore urtsua edo umore beirakara, ikusmen-ardatza okluitzen duen betazaleko ptosia, sortzetiko glaukoma, ubeitisa, erretinoblastoma eta erretinopatia goiztiarra dira (1,2).

Bestetik, hispaniar etniakoak izatea, amaren esnearekin elikatu ez izana eta amatasunean tabakismoak ere anbliopia arriskua sor dezakete. Haur batzuk anbliopiarekin jaiotzen dira, eta beste batzuk geroago garatzen dute haurtzaroan. Anbliopia izateko probabilitatea handiagoa da goiztiarrak diren haurrengan, ohi baino tamaina txikiagoarekin jaio zirengan, anbliopia edo begi-lausoaren aurrekari familiarra dutenengan edo garapenaren nahasmendua dutenengan (3,4).

1.3 PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA.

Anbliopia haurtzaroan ikusmen txarraren kausa ohikoena da, eta detekzio goiztiarra funtsezkoa da; izan ere, kasu egokietan, plastikotasun neuronala dagoen bitartean, baliabide terapeutiko gutxien bidez zuzendu daiteke. Anbliopia oharkabea pasatzen bada edo bizitzako lehen sei urteak igaro ondoren tratatzen ez bada, anbliope den begiko ikusmena ezin berrezartzea gerta liteke. Osasun publikoko arazo garrantzitsua da mundu

mailan haurren %2-5eko prebalentziagatik eta sortzen duen ikusmen-urritasuna bizitza osorako izan daitekeelako (6,7).

Osasunaren Mundu Erakundea (OME)-ren arabera, aztertu dituzten hainbeste ikerketa alderatuz, ikusi da anbliopiak geroz eta prebalentzia altuagoa duela. Europa mailan, 2017. urtean, anbliopiaren prebalentzia %3,67-koa zen. 2019. urtean, aldiz, prebalentzia hori %4.58-ra igo zen (11,12,24,25). Prebalentzia geroz eta altuagoa da urteak pasa ahala. Tenerifeko Santa Cruz ospitalean, lehen arreta mailan egindako ikerketari esker, ikusi izan da prebalentzia igoeraren zergatia. Ikerketa hau 2012 eta 2014 urte artean egin zen. 358 haurreko ikerketa izan zen eta guztietatik, %36-ak soilik bete zituen erizain eta pediatriako errebisio guztiak, %48-ak errebisio eta froga guztiak ez zituen eginda eta %16-ak ez zuen errebisioen erregistrorik. Portzentai hauen eragileak gurasoak haurrekin berrikuspenetara ez joatea, osasun profesionalek laguntzarik ez ematea edo diagnostiko goiztiarrak ez egitea, ezjakintasuna edota historietan datuak zuzen ez jasotzea dira (1).

Bestalde, Osakidetza erakundearen ospitale kostuak aztertuz, 2020. urtean OTI kostua (Lehen Mailako Arretako gastuaren zenbatekoaren batez besteko kostua Osasun Txartel Indibidual bakoitzeko, OTI Osakidetzan finantzaketa publikoaren kontura osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen duen agiria izanda) 220€-koa izan zen; kontsultetako kostuaren barruan, lehen kontsultaren kostua 191€-koa izan zen eta jarraiko kontsultarena 95€-koa izan zen. Urteak aurrera egin ahala, kostu horiek igotzen doazte (*ikusi 4. irudia*), geroz eta garestiagoak dira osasun zerbitzu hauek. Anbliopia inguruko heziketa bati esker, anbliopia goizago detektatu daiteke eta modu sinple eta azkarrago batean zuzendu eta tratatu daiteke, hainbeste kostu suposatu gabe, kontsulten erabilera gutxitu daitekeelako (26).

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013
OTI KOSTUA	220 €	202 €	195 €	199 €	194 €	187 €	181 €	179 €
OSPITALIZAZIO ALTAREN KOSTUA								
Akutuen ospitaleak	5.492 €	4.549 €	4.320 €	4.281 €	4.156 €	4.024 €	3970 €	4003 €
OSPITALIZAZIO-KOSTUAK								
Akutuen ospitaleak	1.181 €	1.010 €	966 €	914 €	869 €	871 €	852 €	820 €
Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	532 €	453 €	417 €	409 €	398 €	387 €	375 €	367 €
Ospitale psikiatrikoak	326 €	362 €	272 €	263 €	278 €	269 €	255 €	243 €
KANPOKO KONSULTEN KOSTUAK								
1. kontsultaren kostua	191 €	165 €	161 €	164 €	162 €	156 €	152 €	156 €
Hurrengo Kontsultaren kostua	95 €	82 €	81 €	82 €	81 €	78 €	76 €	78 €
LARRIALDIETAKO KOSTUAK								
Ospitaleratu gabeko larrialdietako kostua	251 €	173 €	161 €	163 €	152 €	151 €	151 €	149 €

4. irudia: Osakidetza erakundearen osasun zerbitzuen kostu efektiboa urteetan zehar.

Eman ditudan arrazioen ondorioz eta intzidentzia urtetik urtera handitzen ari dela ikusita, beharrezkoa ikusten dut gai honen inguruan Osasun Heziketa bat planteatzea, bereziki erizainei zuzenduta. Hots, erizainak gaiaren inguruan hezi behar direla uste dut, anblipia zer den irakastea, nola tratatu eta hobetu dezaketen, eta noiz bideratu behar den espezialista batengana erakutsiz. Halaber, erizainak izango dira proiektu honen diana taldea.

1.4 DIANA TALDEA.

Gaur egun, Espainiako autonomia-erkidego bakoitza bere osasun-baliabideak eta osasun-programak kudeatzeaz arduratzen da. Horregatik, eskualde bakoitzeko jarduera-protokolo espezifiko batzuk daude. Osasun-zentroek protokolo horiek gauzatu behar dituzte haurren garapena kontrolatzeko, eta horrek ikusmen-bilakaera kontrolatzea eskatzen du (1).

Gure autonomia-erkidegoan arreta jarrita, Euskal Autonomia Erkidegoak, Osakidetzarekin batera, haurrentzako osasun-programa bat du, *Programa de salud infantil (PSI)*, 2021ean eguneratua. Programa horretan, anblipiaren diagnostiko goiztiarrak erizaintzako eta pediatriako kontsultan duen garrantzia azpimarratzen da (13), espezialistarengana bideratu aurretik (*ikus 5. irudia*). Programa honetan, anblipia

bahetzeko adin kritikoa azaltzen digute, adin hori 3 urtekoa izanda. Diagnostiko goiztiarra normalean erizainak egiten du, eta susmoa izanez gero, pediatriak jardungo luke eta, ondoren, oftalmologiara bideratuko litzateke (13,27).

Programa de Salud Infantil. Osakidetza 2021

10 VISITA DE LOS 3 AÑOS					
ACTIVIDAD	PROFESIONAL				
SOMATOMETRÍA	<table border="1"> <thead> <tr> <th>PEDIATRÍA</th> <th>ENFERMERÍA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> Ocular: reflejo rojo, test de Hirschberg, Cover-test. Bucodental: dentición, caries y maloclusión. Auscultación cardiaca. Osteomuscular: EEII, espalda y raquis. Dermatológica. Abdominal. Genitourinaria. </td> <td> Peso / Talla: registro en percentiles. TA (registrar percentiles de TAS y TAD por percentil de talla). Desarrollo psicomotor: variables de la escala Haizea-Llevant. Aspecto general. Visión: test de visión estereoscópica, optotipos. </td> </tr> </tbody> </table>	PEDIATRÍA	ENFERMERÍA	Ocular: reflejo rojo, test de Hirschberg, Cover-test. Bucodental: dentición, caries y maloclusión. Auscultación cardiaca. Osteomuscular: EEII, espalda y raquis. Dermatológica. Abdominal. Genitourinaria.	Peso / Talla: registro en percentiles. TA (registrar percentiles de TAS y TAD por percentil de talla). Desarrollo psicomotor: variables de la escala Haizea-Llevant. Aspecto general. Visión: test de visión estereoscópica, optotipos.
PEDIATRÍA	ENFERMERÍA				
Ocular: reflejo rojo, test de Hirschberg, Cover-test. Bucodental: dentición, caries y maloclusión. Auscultación cardiaca. Osteomuscular: EEII, espalda y raquis. Dermatológica. Abdominal. Genitourinaria.	Peso / Talla: registro en percentiles. TA (registrar percentiles de TAS y TAD por percentil de talla). Desarrollo psicomotor: variables de la escala Haizea-Llevant. Aspecto general. Visión: test de visión estereoscópica, optotipos.				
EXPLORACIÓN					

5. irudia: PSI-an 3 urteko hurrei pediatriako eta erizaintzako kontsultan egiten zaizkien prozedurak.

OME-ren arabera, erizaina da osasun-sistemaren eta pertsonen arteko lehen katebegia eta kontaktu-punturik sendoena, helburu nagusizat zerbitzuak behar dituzten biztanleei kalitatezko arreta eta zaintza eskaintzea duena, komunikazioaren, informazio teoriko-diziplinarraren erabileraren, komunitatearekiko baliabideen kudeaketaren eta beste instantzia batzuen bidez. Ikusmen-desgaitasuna duen haurren erizaintza-arreta erizaintzaren funtsezko erantzukizuna da ere, batez ere anbliopia garaiz detektatzen laguntzeko (25,28-30).

Hori dela eta, nire diana-taldea erizaintzako profesionalak izango dira, anbliopiaren inguruan hezituz, gai honen inguruko trebetasunak garatu ahal izango dituzte eta anbliopiaren detekzio goiztiarrean eta tratamenduan lagundu ahal izango dute.

2. HELBURUAK.

2.1 HELBURU NAGUSIA.

Pediatria eta oftalmologia arloan jarduten duten Gipuzkoako erizainak Osasun Heziketaren bidez haurretan anbliopia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea.

2.2 BIGARREN MAILAKO HELBURUAK.

- Osasun programaren justifikazioa osatzea.
- Helburu pedagogikoak deskribatzea.
- Hezkuntza edukiak identifikatzea.
- Proiektuaren egituraren eta baliabideak finkatzea.
- Proiektuaren ebaluazioa diseinatzea.

3. METODOLOGIA.

Lan hau egiterako garaian artikuluen bilaketa ezinbestekoa izan da, izan ere, lortutako informazioaren gehiengoa bilaketa horietatik lortu da. Lehenik eta behin, bilaketa sistematizatuak egiteko PIO egitura jarraituz, galdera bat formulatu da: P (anbliopia pairatzen duten haurrak), I (erizainen esku-hartzea diagnostiko eta tratamenduan), O (emaitzak, eraginkortasuna) (*ikusi 1. taula*).

1. taula: PIO egitura eta osasun-zientzietako deskribatzaileak.

PIO egitura	MeSH (pubmed)	DeCS (BVS)	Hitz gakoak (Dialnet)
P (populazioa): anbliopia pairatzen duten haurrak	Amblyopia Eye diseases	Ambliopía Ojo vago Trastorno de la visión	Ambliopía Trastorno ocular
I (esku hartzea): erizainen esku hartzea diagnostiko eta tratamenduan	Education Nurse role	Educación sanitaria Cuidados de enfermería	Cuidados de enfermería Educación sanitaria
O (ondorioa): emaitzak, eraginkortasuna	Prevention Therapeutic result Treatment efficacy	Prevención y control Resultados del tratamiento Efectividad del tratamiento	Prevención Resultados Efectividad

PIO formulatu ostean, hitz-giltzarriak, hau da, MeSH, DeCS eta hitz gakoak aurkitu dira. “AND” operatzaile boolearra erabiliz bilaketa kate ezberdinak sortu dira datu-base elektronikoen bilaketa ezberdinak egiteko. Erabili diren datu baseak ondorengoak dira: *PubMed, Biblioteca Virtual en Salud (BVS), Cuiden eta Dialnet*.

Bilaketak errazteko iragazkiak erabili dira, esaterako, gehienez 5 urteko artikuluen izatea (urteak aurrera egin ahala egoera aldatzen doanez, ikerketa gaurkotua egiteko),

gaztelera edota ingelesez egotea (artikuluak ulertzen dugun hizkuntza batean izateko) eta testua osorik argitaratua izatea.

Barneratze-irizpideei dagokionez, hauek artikuluetan hurrek izan dezaketen anblipiaren detekzio tekniken eta tratamenduei buruzko informazioa eta honetan erizaintzak duen esku-hartzeak aipatzea izan dira. Baztertze-irizpideei dagokionez, ulermen zailtasuna eta helburuetatik kanpo geratzen diren ikerketak izan dira (*ikusi 2. taula*).

2. taula: Datu-base elektronikoetako bilaketa estrategiak eta emaitzak.

Datu-basea	Bilaketa estrategia	Emaitzak iragazki gabe	Iragazkiak	Emaitzak iragazkiekin	Hautatutako artikulua
BVS	(tw:(ambliopia))	6769	5 urte Erderaz Testu osoa	25	1
	(tw:(ambliopia)) AND (tw:(cuidados de enfermería))	17		2	1
	(tw:(ambliopia)) AND (tw:(prevención))	386		5	1
	(tw:(ambliopia)) AND (tw:(educación sanitaria))	12		0	0
Pubmed	(amblyopia) AND (prevention)	977	5 urte Testu osoa	94	3
	(amblyopia) AND (education)	460		95	2
	(amblyopia) AND (nurse role)	3		0	0
	((amblyopia) AND (prevention)) AND (treatment efficacy)	124		13	0
Dialnet	ambliopía	421	5 urte Erderaz Testu osoa	41	1
	cuidados de la ambliopía	3		1	1
	prevención de la ambliopía	13		2	0
	ojo vago	24		6	1

Datu baseez gain, interneteko SciELO liburutegi elektronikoa erabili da eta erakunde ofizialek (Osakidetza, OMS, *Asociación Española de Optometristas*, *National eye institute*, *Sociedad Española de Enfermería Oftalmológica* (SEEOF)) argitaratutako

artikuluak hautatu dira. Azkenik, zenbait artikulua Google Akademikoan bilatu dira, baita oftalmologia eta pediatrian adituak diren profesionalen blog-etan ere (*ikusi 3. taula*).

3. taula: Erabili diren beste web orri eta baliabide batzuk.

Datu basea	Izenburua eta erreferentzia zenbakia
Scielo	- Estudio de la eficacia del test TNO en la detección precoz de la ambliopía en atención primaria (1).
Osakidetza	- Osasun zerbitzuen kostu efektiboa (26). - Programa de Salud Infantil (13). - Procesos específicos de Atención Integrada a Niñas y Niños con Necesidades Especiales (PAINNE) (27).
OMS	- Ceguera y discapacidad visual (25).
SEEOF	- La ceguera en España (30).
Asociación Española de Optometristas Unidos	- ¿Qué es el ojo vago o Ambliopía? Síntomas, causas y tratamiento de la Ambliopía (3).
National eye institute	- Ambliopía (ojo perezoso u ojo vago) (4).
MedlinePlus	- Ambliopía (15).
Mayo Clinic	- Ambliopía (ojo perezoso): síntomas y causas (10). - Ambliopía (ojo perezoso): diagnóstico y tratamiento (17).
Google Akademikoa	- Recomendaciones para el examen visual en los niños (2). - Guía de práctica clínica en la Ambliopía (6). - Terapia binocular dicóptica y dispositivos electrónicos para el tratamiento de la Ambliopía (7). - Ambliopía u ojo vago: así son las causas de esta alteración de la visión (5). - Ambliopía y estrabismo (9). - 10 ejercicios útiles para las personas con ojo perezoso (21). - Ejercicios para el ojo vago para corregir la ambliopía (22). - Enfermería pedrática (29).

4. PLANGINTZA.

4.1 DIANA TALDEA.

Gipuzkoa inguruko erizainei zuzenduta dago programa hau. Edozein erizainek parte hartu dezake, batez ere pediatria edo oftalmologia arloan aritzen badira. Anbliopia inguruan heziak izango dira, gai honen inguruko trebetasunak garatu ahal izango dituzte eta anbliopiaren detekzio goiztiarrean eta tratamenduan lagundu ahal izango dute.

Taldearen kaptazioa egiteko, Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala (COEGI) asozioazioarekin harremanetan jarriko da eta zuzendariari aurkezpen-gutun bat bidalioko zaio Osasun Heziketa programaren inguruan informatzeko (*ikusi 1. eranskina*). Aldi berean, proiektuaren inguruko informazioa duen posterra eta triptikoa (*ikusi 2. eta 3. eranskinak*) bidaliko zaio ere. Bestalde, Osasun Heziketan parte hartzeko asmoa duten pertsonen kopurua ezagutzeko, Gipuzkoako osasun zentro eta ospitaleei mezu elektronikoko bat (*ikusi 4. eranskina*), posterra eta triptikoarekin batera, bidaliko zaie programaren informazioarekin eta izen-emate zerrendarekin (*ikusi 5. eranskina*). 40 erizainek parte hartuko dute. Erizain gehiagok parte hartu nahiko balute, bi hilabete desberdinetan egiteko aukera egongo litzateke. Aldi berean, baimen informatua (*ikusi 6. eranskina*) eta konfidentzialtasun-konpromezua (*ikusi 7. eranskina*) bete beharko dute.

Programan izena eman duten erizainen gaiaren inguruko ezagutzak eta gaitasunak identifikatzeko, saioak hasi baino lehen, online bidezko galdetegia (*ikusi 8. eranskina*) pasatuko zaie. Horrela, aurretik duten ezagutza eta gaitasunak jakinik, heziketa-taldeak antolatu eta zein gai eta hauen sakontasuna erabakiko da. Galdetegiko erantzunetan ezagutza gabezi gehien duten gaiak identifikatuko dira eta horri esker, heziketa-saioak nolakoak izango diren jakingo da.

4.2 HELBURU PEDAGOGIKOAK.

4.2.1 HELBURU NAGUSIA.

Gipuzkoako erizainak Osasun Heziketaren bidez haurretan anbliopia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea.

4.2.2 BIGARREN MAILAKO HELBURUAK.

Talde dianak helburu nagusia lortu ahal izateko, lehenik helburu zehatzak lortu beharko ditu. Horretarako, diana taldeak lortu beharreko lau helburu zehatz sortu dira:

1. Anbliopia zer den jakitea (ezagutzazkoa).
2. Anbliopiak eragiten dituen zeinu eta sintomak identifikatzea *screening*-a eta prebentzioa indartzeko (ezagutzazkoa).
3. Anbliopiaren detekzio goiztiarraren teknikak burutzen jakitea (trebetasunezkoa).
4. Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea (ezagutzazkoa eta trebetasunezkoa).

Helburuak bi motatan sailkatu dira: ezagutzazkoak eta trebetasunezkoak. Ezagutzazkoen barruan anbliopiaren definizioa, fisiopatologia, motak, zeinu-sintomak, diagnostikoa eta tratamendua ezagutuko eta barneratuko dituzte. Hau da, gaiaren inguruko zati teorikoa ikasi eta landuko da. Trebetasunezkoetan aldiz, zati praktikoa landuko da, esate baterako, zeinu eta sintomak begi-bistaz antzeman, diagnostikoak nola egiten diren teknikak ezagutzuz eta tratamenduan erabiltzen diren teknikak aplikatzen ikasiko dituzte.

4.3 METODOLOGIA PEDAGOGIKOA.

Aurretik aipatu izan diren bigarren mailako helburuei erreparatuz, jardueren programazioa egingo da, helburu zehatz bakoitza lortzeko behar den informazioa eskainiz eta landuz, eta informazio horri guztiari esker, helburu nagusia lortu ahal izango dute. Hezkuntza saioen diseinua sortzeko, aurreko galdetegiaren erantzunak eta helburu nagusia lortzeko aukeratu diren bigarren mailako helburuak kontuan izango dira.

Sei saio sortuko dira, bakoitzean helburu zehatz bana azalduko da eta horretarako heziketarako teknikak erabili beharko dira. Hasteko, saio guztiak elkartze teknika batekin hasiko dira, partaideen eta irakasleen aurkezpena egiteko, elkar ezagutzeko eta konfiantza sustatzeko. Bertan ere saioetan zehar landuko den laburpen txikia azalduko da. Ondoren, saioetan landuko denaren arabera, teknika bat edo beste erabiliko dira:

- Ikerketa teknika: taldearengandik gaiaren inguruan dakiten informazioa biltzeko balio dute:

- Galdetegia: banaka, binaka edo talde txikitan aurretik eman zaien galdetegiaren erantzunak aztertzen eta elkar komentatzen dira.
- Espozisio teknikak: taldeak duen informazioa handitzeko eta berrantolatzeko balio dute:
 - Parte hartutako lezioa/irakaspena: gai baten inguruan aurretik dituzten ezagutzak azaltzeko eskatzen zaie. Gero, taldeak aurrez dituen ezagutzak osatzen dituen azalpenak ematen dira. Azkenik, eztabaida batekin eta zalantzekin bukatzen da.
 - Azalpena diskusioarekin: gaia aurkezten edo azaltzen da eta ondoren, gaiaren inguruan eztabaidatzen da. Modu honetan, parte-hartzaileen ideiak ezagutu eta zalantzak argitu daitezke.
 - Bideoa diskusioarekin: gaiaren inguruko bideo bat ikusten da. Bideoan zehar edo bukaeran entzundakoaren inguruan eztabaidatzen da.
- Gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknikak: gaitasun zehatzetan entrenatzeko eta egoera errealetan jokatzeko ahalmena garatzeko balio dute:
 - Demostrazioa eta entrenamendua: irakasleak gaitasun bat azaltzen eta egiten du. Jarraian, taldeari egiteko eskatzen zaio.
 - Simulazio operatiboa: taldekoei egoera bat azaldu eta nola jokatuko luketen azaldu eta erakusten dute.
- Ebaluazio galdetegia: emaitzak, prozesua, egitura eta estaldura ebaluatzeko balio duen eta programa bukaeran egiten den galdetegia da.

4.4 JARDUEREN PROGRAMA.

Behin saioak lantzeko heziketa teknikak aukeratu direla, kronograma, hezkuntza edukiak eta saioen antolaketa erabakiko da.

4.4.1 KRONOGRAMA.

Kronogramari dagokionez, eduki bakoitza zein egunean landuko den azaltzen da, non beteko diren saioak, zein osasun agentek azalduko dituen saioak eta bertan beharko diren baliabideak ere azalduko dira (*ikusi 4. taula*).

4. taula: Saioen kronograma.

	Edukiak	Kronograma	Lekua	Osasun agentea	Baliabideak
1. saioa	Anbliopia zer den jakitea.	Maiatzak 2 Asteartea 17:00-19:00h	Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala COEGI	Erizain oftalmologoa Erizain pediatrikoa	- Ordenagailua - Proiektorea - Identifikazio pegatinak - Koadernoak - Boligrafoak
2. saioa	Anbliopiak eragiten dituen zeinu eta sintomak identifikatzea.	Maiatzak 4 Osteguna 17:00-19:00h	Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala COEGI	Erizain oftalmologoa Erizain pediatrikoa	- Ordenagailua - Proiektorea - Identifikazio pegatinak - Koadernoak - Boligrafoak
3. saioa	Anbliopiaren detekzio goiztiarraren teknikak burutzen jakitea.	Maiatzak 9 Asteartea 17:00-19:00h	Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala COEGI	Erizain oftalmologoa Erizain pediatrikoa	- Ordenagailua - Proiektorea - Identifikazio pegatinak - Koadernoak - Boligrafoak - Optotipoak - Estereograma - Oftalmoskopioa - Argidun boligrafoa
4. saioa	Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea I.	Maiatzak 11 Osteguna 17:00-19:00h	Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala COEGI	Erizain oftalmologoa Erizain pediatrikoa	- Ordenagailua - Proiektorea - Identifikazio pegatinak - Koadernoak - Boligrafoak - Adabakiak - Bangerter filtroak
5. saioa	Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea II.	Maiatzak 16 Asteartea 17:00-19:00h	Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala COEGI	Erizain oftalmologoa Erizain pediatrikoa	- Ordenagailua - Proiektorea - Identifikazio pegatinak - Koadernoak - Boligrafoak - Betaurreko anaglifoak - Bideojokuak

6. saioa	Gaiaren laburpena eta errebasoa.	Maiatzak 18 Osteguna 17:00-19:00h	Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofiziala COEGI	Erizain oftalmologoa Erizain pediatrikoa	- Ordenagailua - Proiektorea - Identifikazio pegatinak - Koadernoak - Boligrafoak
----------	----------------------------------	---	--	---	---

4.4.2 HEZKUNTZA EDUKIAK.

Saio bakoitzean landuko den teoria azalduko da hurrengo atalean. Sei saio sortu dira, bigarren mailako helburuetatik abiatuta. Horretaz gain, taula bat gehituko da (*ikusi 5. taula*) eta bertan saioen iraupena eta heziketarako teknikak azalduko dira.

1. saioa: Anbliopia zer den jakitea.

Saio honetan, anbliopiaren definizioa eta honen barruan aurki daitezkeen motak azalduko dira. Horretarako, hasieran taldekideen aurkezpena egingo da, elkar ezagutzeko eta programaten helburua adierazteko. Aldi berean, osasun agenteen aurkezpena egingo da ere. Ondoren, proiektua hasi baino lehen bete behar izan duten galdetegia aztertuko eta elkar hausnartuko da, modu honetan gaiaren inguruko ezagutza maila jakin ahal izango da. Jarraian, gaiari hasiera emateko, anbliopia zer den azalduko da eta zalantzak, komentarioak eta pentsamenduak planteatuko zaizkio taldeari.

2. saioa: Anbliopiak eragiten dituen zeinu eta sintomak identifikatzea.

Bigarren saioan, anbliopiak eragiten dituen zeinu-sintomak aztertu eta identifikatzen erakutsiko da, irudiak eta bideoak erabiliz, egoera erreal gisa, errazago izango baita hauek irudikatzen. Saio bukaeran, komentarioak eta zalantzak argituko dira.

3. saioa: Anbliopiaren detekzio goiztiarraren teknikak burutzen jakitea.

Anbliopia detektatzeko, hainbat teknika daude, hala nola, Bruckner testa (erreflexu gorria), Hirschberg-en testa, Cover testa, ikusmen-zorroztasuna optotipoekin, eta ikusmen-test estereoskopikoa (Lang edo TNO testa). Saioan berez erizainak egin ditzazkeenak azalduko dira, optotipoena, TNO testa eta erreflexu gorria. Hiru diagnostiko mota horiek azalduko dira teoria eta bideo bidez, eta gero, talde txikiak sortuz, elkarren artean egingo dituzte ariketak.

4. saioa: Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea I.

Anbliopiaren tratamendua azaltzeko, bi saio erabiliko dira. Laugarren saio honetan, anbliopiaren tratamendua azalduko da. Azalpena eta bideoak erabiliz, zein tratamendu desberdin dauden azalduko da, eta erabiltzen diren materialak eramango dira, taldeak hauek ikusteko.

5. saioa: Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea II.

Aurreko saioan tratamenduak azalduko dira, eta honetan, anbliope den begiaren ikusmen ahalmena hobetzeko zein ariketa egiten diren azalduko dira, teknologia berrien erabilpena eta teknologia gabeko ariketak erakutsiz. Gero, talde txikiak egingo dira eta ariketa hauek probatuko dituzte elkarrekin. Saioa bukatzeko, denon artean ariketen inguruan hausnartuko da.

6. saioa: Gaiaren laburpena eta errepassoa.

Osasun Hezkuntza programari amaiera emateko, aurreko saioetan landutakoa azaltzeko eskatuko zaie. Lau talde sortuko dira eta talde bakoitzak puntu bat azalduko du. 10 minutu utziko zaie aurkezpena antolatzeko. Ondoren, demostrazio eta simulakroak egingo dira, diagnostiko eta zuzentze teknikak ondo barneratu dituztela ziurtatzeko. Bukatzeko, ebaluazio galdetegi bat pasatuko zaie, honi esker emaitzak, prozesua, egitura eta estaldura ebaluatuko dira.

5. taula: Saioen antolaketa.

SAIOA	GAIA	DENBORA	HEZIKETARAKO TEKNIKAK
1	Anblipia zer den jakitea.	90'	<u>Elkartze teknika (10'), ikerketa teknika; galdetegi (30') eta Esposizio teknika; azalpena eta bideoa diskusioarekin (50')</u> Anbliopiaren definizioa eta honen barruan aurki daitezkeen motak azalduko dira. Horretarako, hasieran taldekideen aurkezpena egingo da, elkar ezagutzeko eta programaten helburua adierazteko. Aldi berean, osasun agenteen aurkezpena egingo da ere. Ondoren, proiektua hasi baino lehen bete behar izan duten galdetegi aztertuko eta elkar hausnartuko da, modu honetan gaiaren inguruko ezagutza maila jakin ahal izango da.

			Jarraian, gaiari hasiera emateko, anblipia zer den azalduko da eta zalantzak, komentarioak eta pentsamenduak planteatuko zaizkio taldeari. Zer da anblipia?: https://youtu.be/HPK5kS8bCa4
2	Anbliopiak eragiten dituen zeinu eta sintomak identifikatzea.	90'	<u>Elkartze teknika (10'), parte hartutako lezioa/irakaspena (50') eta esposizio teknika; azalpena eta bideoa diskusioarekin (30')</u> : Anbliopiak eragiten dituen zeinu-sintomak aztertu eta identifikatzen erakutsiko da, irudiak eta bideoak erabiliz, egoera erreal gisa, errazago izango baita hauek irudikatzen. Saio bukaeran, komentarioak eta zalantzak argituko dira. Haurraren ikusmen garapena: https://youtu.be/L9i-ehGCA6Q
3	Anbliopiaren detekzio goiztiarraren teknikak burutzen jakitea.	90'	<u>Elkartze teknika (10'), esposizio teknika; azalpena eta bideoa diskusioarekin (40') eta gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknikak; demostrazioa eta entrenamendua (40')</u> : Anblipia detektatzeko, hainbat teknika daude, hala nola, Bruckner testa (erreflexu gorria), Hirschberg-en testa, Cover testa, ikusmen-zorroztasuna optotipoekin, eta ikusmen-test estereoskopikoa (Lang edo TNO testa). Saioan berez erizainak egin ditzazkeenak azalduko dira, optotipoena, TNO testa eta erreflexu gorria. Hiru diagnostiko mota horiek azalduko dira teoria eta bideo bidez, eta gero, talde txikiak sortuz, elkarren artean egingo dituzte ariketak. TNO testa: https://youtu.be/xnVAJv5T-sA Erreflexu gorria: https://youtu.be/sHgZOup_z7g
4	Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea I.	90'	<u>Elkartze teknika (10'), esposizio teknika; azalpena diskusioarekin (40') eta gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknikak; demostrazioa eta entrenamendua (40')</u> : Anbliopiaren tratamendua azalduko da. Azalpena erabiliz, zein tratamendu desberdin dauden azalduko da, eta erabiltzen diren materialak eramango dira, taldeak hauek ikusteko.
5	Anbliopiaren tratamendua ezagutzea eta zuzentzearen teknikak erakusten jakitea II.	90'	<u>Elkartze teknika (10'), esposizio teknika; azalpena eta bideoa diskusioarekin (40') eta gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknikak; demostrazioa eta entrenamendua (40')</u> : Anblipie den begiaren ikusmen ahalmena hobetzeko zein ariketa egiten diren azalduko dira, teknologia berrien erabilpena eta teknologia gabeko ariketak erakutsiz. Gero, talde txikiak egingo dira eta ariketa hauek probatuko dituzte elkarrekin. Saioa bukatzeko, denon artean ariketen inguruan hausnartuko da. Dig Rush: https://youtu.be/y2C0NQ1ZME4

			Tetris: https://youtu.be/ckCeBTPKYFw
6	Gaiaren laburpena eta errepasoa.	90'	<p><u>Elkartze teknika (10'), esposizio teknika; azalpena diskusioarekin (20'), gaitasunak eta jarrerak garatzeko teknikak; simulazio operatiboa (50') eta ebaluazio galdetegia (10')</u>:</p> <p>Aurreko saioetan landutakoa azaltzeko eskatuko zaie. Lau talde sortuko dira eta talde bakoitzak puntu bat azalduko du. 10 minutu utziko zaie aurkezpena antolatzen. Ondoren, demostrazio eta simulakroak egingo dira, diagnostiko eta zuzentze teknikak ondo barneratu dituztela ziurtatzeko. Bukatzeko, ebaluazio galdetegi bat pasatuko zaie, honi esker emaitzak, prozesua, egitura eta estaldura ebaluatuko dira.</p>

4.4.3 BALIABIDEAK.

Hezkuntza programa aurrera eramateko, hainbat baliabide beharrezkoak dira, esaterako, disziplina anitzeko osasun profesionalak, hala nola, erizain oftalmologo eta erizain pediatriko bana. Boluntario gisa etorriko dira proiektuan laguntzeko eta haien esperientzia partekatzeko.

Aurkezpenak azaltzeko ordenagailu eta proiektorea beharko dira. GEKO elkartean dagoen areto gelan daudenak erabiliko dira.

Demostrazio, entrenamendu eta simulazio operatiboetan erabiliko diren materialak, ospitaleetatik eskuratuko dira baimena eskatuz, erizain oftalmologo eta pediatrikoari eskatuko zaie, ahal izanez gero (adabakiak, Bangerten iragazkia, betaurreko anaglifoak, optotipoak, estereogramak, oftalmoskopioa).

Hezkuntza jaso nahi duten erizaintzako koaderno eta boligrafoak, nahi izanez gero apunteak har ditzaten eta elkar ezagutzeko eta konfiantza sustatzeko identifikatzeko pegatinak beharko dira. Bestalde, erizainei lanerako justifikante bat emango zaie asistentzia eta formazioa jaso dutela baieztatzen, COEGI eta Osakidetzak sinatua.

4.5 EBALUAZIOAREN PLANGINTZA.

Erizainen ezagutza eta trebetasun maila hobetu den ala ez jakiteko, eta Osasun Heziketaren eraginkortasuna ebaluatzeko, azken saioaren amaieran betetzeko eskatuko zaien galdegia (*ikusi 9. eranskina*) erabiliko da ebaluazioa egiteko.

Galdetegi horrekin diana taldeak helburu zehatzak lortu dituen ebaluatuko da, eta lorpenen arabera, jakin izango da helburu nagusia lortu den edo ez. Hortaz gain, ebaluazioa berez jarraia izango da, irakaskuntza-ikasketa prozesu osoan zehar egingo baita. Saioetan zehar, hausnarketa eta zalantzak argitzeko momentuekin diana taldeak ezagutzak eskuratu dituen edo ez jakin daiteke, baita azken saioan egingo den parte hartutako lezioari esker ere.

Azkenik, helbide elektronikoko bat eskainiko zaie mezu bidez edozein zalantza kontsultatu ahal izateko: mbaro001@ikasle.ehu.eus

5. EKARPEN PERTSONALA.

Ezjakintasuna eta prestakuntzarik eza dira anblipiaren intzidentziak gora egiteko arrazoi nagusiak, urteak igaro ahala. Horregatik, osasun programak egitea beharrezkoa da intzidentzia txikiago batera iristeko.

Erizainek zeregin garrantzitsua dute hezkuntzan eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan; izan ere, harreman hurbila dute pertsonekin, eta lehen mailako arretako kontsultetatik hitz egin eta haien beharrei erantzun diezaiekete. Baina osasun profesionalak prestatzeaz gain, biztanleria ere prestatu eta hezi behar da, haiek arduratu behar baitute seme-alabek azterketa medikoak egin ditzaten, arazo horiek prebenitzeko.

Gainera, modalitate hau lantzea pedagogiaren eta hezkuntzaren munduan murgiltzeko aukera ona izan da, Osasun Heziketako programa baten atalak prestatzeko trebetasunak eskuratuz, justifikaziotik hasi eta ebaluaziora arte, helburuen formulaziotik edo teknika pedagogikoen planteamendutik igaroz. Horrek guztiak erakutsi dit erizaintzaren hezkuntza-funtzioa informazio-funtzioa baino konplexuagoa dela, biztanleriari irakatsi ahal izateko jakin behar baita nola egin eta zein informazio den fidagarri eta baliogarria.

6. BIBLIOGRAFIA.

1. Delgado Espinosa C, Castañeda Suardíaz JG, Cordero Jorge N, Rodríguez Rodríguez S. Estudio de la eficacia del test TNO en la detección precoz de la ambliopía en atención primaria. *Enferm. Glob.* [Internet]. 2018 [2023/02/27 konsultatua]; 17(49):142-150.
Erabilgarri: <https://dx.doi.org/10.6018/eglobal.17.1.275081>
2. López-Torres V, Salamanca-Libreros OF, Törnquist AL. Recomendaciones para el examen visual en los niños. *Iatreia.* [Internet]. 2019 [2023/02/27 konsultatua]; 32(1):40-51.
Erabilgarri: <https://revistas.udea.edu.co/index.php/iatreia/article/view/331348>
3. Asociación Española de Optometristas Unidos (AEOptometristas) [Internet]. Madrid: AEOptometristas; 2022 [2023/02/27 konsultatua]. ¿Qué es el ojo vago o ambliopía? Síntomas, causas y tratamiento de la ambliopía; [3 pantaila ggb].
Erabilgarri: <https://optometristas.org/que-es-el-ojo-vago-o-ambliopia-sintomas-causas-y-tratamiento-de-la-ambliopia>
4. National Eye Institute (NEI) [Internet]. Bethesda: NEI; 2022 [2023/02/27 konsultatua]. What is amblyopia?; [3 pantaila ggb].
Erabilgarri: <https://www.nei.nih.gov/learn-about-eye-health/eye-conditions-and-diseases/amblyopia-lazy-eye>
5. Martínez de Carneros A. Ambliopía u ojo vago: así son las causas de esta alteración de la visión [Internet]. Madrid: Martínez de Carneros oftalmología. 2022 [2023/02/27 konsultatua].
Erabilgarri: <https://www.martinezdecarneros.com/ambliopia-u-ojo-vago-asi-son-las-causas-de-esta-alteracion-de-la-vision/>
6. Sociedad de Oftalmología Castellano Leonesa (SOFCALE). Guía de práctica clínica en la ambliopía. SOFCALE [Internet]. 2019 [2023/02/27 konsultatua]: 4-31.
Erabilgarri: <https://sofcale.org/wp-content/uploads/2021/12/Guia-Practica-Clinica-en-la-Ambliopia-CC%81a-4.pdf>
7. Rodríguez Abarca MA. Terapia binocular dicóptica y dispositivos electrónicos para el tratamiento de la ambliopía. Universidad autónoma de Nuevo León. Facultad de

- medicina [Internet]. 2021 [2023/02/27 konsultatua]: 11-13, 27-47.
Erabilgarri: <http://eprints.uanl.mx/24546/7/24546.pdf>
8. Ballesteros Sánchez A. Nuevas técnicas y avances en el tratamiento de la ambliopía en niños. Universidad de Sevilla [Internet]. 2019 [konsulta, 2023/02/27]; 1-14.
Erabilgarri: <https://idus.us.es/handle/11441/91739>
9. Merchante Alcántara M. Ambliopía y estrabismo. *Pediatr Integral* [Internet]. 2018 [konsulta, 2023/02/27]; XXII(1): 32-44.
Erabilgarri: https://www.pediatriaintegral.es/wp-content/uploads/2018/xxii01/04/n1-032-044_M_erchante.pdf
10. Mayo Clinic [Internet]. Scottsdale: MayoClinic; 2021 [konsulta, 2023/02/27]. Ambliopía (ojo vago); [4 pantaila ggb].
Erabilgarri: <https://www.mayoclinic.org/es-es/diseases-conditions/lazy-eye/symptoms-causes/sy c-20352391>
11. Hashemi H, Pakzad R, Yekta A, Bostamzad P, Aghamirsalim M, Sardari S, Valadkhan M, Pakbin M, Heydarian S, Khabazkhoob M. Global and regional estimates of prevalence of amblyopia: A systematic review and meta-analysis. *NIH* [Internet]. 2018 [2023/02/27 konsultatua]; 26(4):168-183.
Erabilgarri: <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/30059649/>
12. Alatawi A, Alali N, Alamrani A, Hashem F, Alhemaidi S, Alreshidi S, Albalawi H. Amblyopia and Routine Eye Exam in Children: Parent's Perspective. *NIH* [Internet]. 2021 [2023/02/27 konsultatua]; 8, 935: 1-10.
Erabilgarri: <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/34682200/>
13. Osakidetza. Programa de Salud Infantil (PSI). Osakidetza. Eusko Jaurlaritza [Internet]. 2021 [konsulta, 2023/02/27]; 1: 38, 42, 64, 194-202.
Erabilgarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vida_saludable_publicaciones/es_def/adjuntos/prog_salud_infantil_es.pdf
14. Blanco Vázquez M, Fernández Gay S, Sánchez Pavón I, Martín Herranz R, Vázquez Fernández ME. Detección precoz de la ambliopía en Atención Primaria. *Rev Pediatr Aten Primaria* [Internet]. 2022 [konsulta, 2023/02/27]; 24(93): 75-84.
Erabilgarri: <https://pap.es/articulo/13624/deteccion-precoz-de-la-ambliopia-en-atencion-primaria>

15. MedlinePlus [Internet]. Bethesda: NEI; 2022 [konsulta, 2023/02/27]. Ambliopía; [3 pantaila ggb].
Erabilgarri: <https://medlineplus.gov/spanish/ency/article/001014.htm>
16. McConaghy JR, McGuirk R. Amblyopia: Detection and Treatment. Am Fam Physycyan [Internet]. 2019 [konsulta, 2023/02/27]; 100(12): 745-750.
Erabilgarri: <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/31845774/>
17. Mayo Clinic [Internet]. Scottsdale: MayoClinic; 2021 [konsulta, 2023/02/27]. Ambliopía (ojo vago); [5 pantaila ggb].
Erabilgarri: <https://www.mayoclinic.org/es-es/diseases-conditions/lazy-eye/diagnosis-treatment/drc-20352396>
18. Bosquet Nuño S, Piñero Llorens DP. Terapia visual dicóptica para la ambliopía en niños: revisión bibliográfica. Gaceta de optometría [Internet]. 2019 [konsulta, 2023/02/27]; 543: 40-45.
Erabilgarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6849633>
19. Gopal SKS, Kelkar J, Kelkar A, Pandit A. Simplified updates on the pathophysiology and recent developments in the treatment of amblyopia: A review. Indian J Ophthalmol [Internet]. 2019 [konsulta, 2023/02/27]; 67(9): 1392-1399.
Erabilgarri: <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/31436180/>
20. Fernández González ME, Docampo Fernández E, Frometa Rivaflécha G, Del Valle Caballero D, Acosta Guzmán R. Introducción de videojuegos en el tratamiento convencional de la ambliopía funcional. Rev. cuba oftalmol [Internet]. 2021 [konsulta, 2023/02/27]; 34(1):e850.
Erabilgarri: <https://pesquisa.bvsalud.org/portal/resource/pt/biblio-1289527>
21. MejorconSalud [Internet]. Salamanca: MejorconSalud; 2021 [konsulta, 2023/02/27]. 10 ejercicios útiles para las personas con ojo perezoso; [3 pantaila ggb].
Erabilgarri: <https://mejorconsalud.as.com/ejercicios-utiles-personas-ojo-perezoso/>
22. Medicina Básica [Internet]. Medicina básica; 2022 [konsulta, 2023/02/27]. Ejercicios para el ojo vago para corregir la ambliopía; [4 pantaila ggb].
Erabilgarri: <http://medicinabasica.com/ejercicios-para-el-ojo-vago-para-corregir-la-ambliopia>
23. Vision Health Initiative (VHI) [Internet]. Eastern: VHI; 2023 [konsulta, 2023/02/27]. Keep an Eye on Your Child's Vision; [2 pantaila ggb].

- Erabilgarri: <https://www.cdc.gov/visionhealth/resources/features/vision-health-children.html>
24. Mostafaie A, Ghojzadeh M, Hosseinfard H, Manaflouyan H, Farhadi F, Taheri N, Pashazadeh F. A systematic review of Amblyopia prevalence among the children of the world. NIH [Internet]. 2020 [2023/02/27 kontsultatua]; 64(4): 342-355.
- Erabilgarri: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC7739017/>
25. Organización Mundial de la Salud (OMS) [Internet]. Ginebra: OMS; 2022 [kontsulta, 2023/02/27]. Ceguera y discapacidad visual; [1 pantaila ggb].
- Erabilgarri: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/blindness-and-visual-impairment>
26. Osakidetza [Internet]. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza - Osasun Saila; 2020 [kontsulta, 2023/02/27]. Osasun zerbitzuen kostu efektiboa; [4 pantaila ggb].
- Erabilgarri: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/gardentasuna-gobernu-ona/-/osasun-zerbitzuen-koste-efektiboa/>
27. Osakidetza. Procesos específicos de Atención Integrada a Niñas y Niños con Necesidades Especiales (PAINNE). Osakidetza. Eusko Jaurlaritza [Internet]. 2020 [kontsulta, 2023/02/27]; 1: 123, 156-160.
- Erabilgarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_painne_2022/es_def/adjuntos/PAINNE-2022_procesos_es.pdf
28. Paulín García C, Gallegos-Torres RM. El papel del personal de enfermería en la educación para la salud. Horiz Enferm [Internet]. 2019 [kontsulta, 2023/02/27]; 30(3): 271-285.
- Erabilgarri: <https://docs.bvsalud.org/biblioref/2021/05/1223572/271-285.pdf>
29. Hockenberry MJ, Wilson D, Rodgers CC. Enfermería pediátrica. WONG [Internet]. 2020 [kontsulta, 2023/02/27]; 10: 90-93.
- Erabilgarri: https://www.academia.edu/61413640/Wong_Enfermer%C3%ADa_Pediatrica
30. Sociedad Española de Enfermería Oftalmológica (SEEOF) [Internet]. Valencia: SEEOF; 2021 [kontsulta, 2023/02/27]. La ceguera en España; [1 pantaila ggb].
- Erabilgarri: <https://www.seeof.es/la-ceguera-en-espana/>

7. ERANSKINAK.

1. Eranskina: Osasun Heziketa programaren inguruan informatzeko aurkezpen-gutuna.

Zuzendari agurgarria:

Maialen Baro Babiano naiz, EHU-ko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko laugarren mailako ikaslea. Gutun honen bidez, anbliopiari, haren diagnostiko goiztiarrari eta tratamenduari buruz egiten ari naizen osasun-hezkuntza programa bat aurkeztu nahi da. Proiektu honen helburua Gipuzkoako erizainak Osasun Heziketaren bidez haurretan anblipia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea da.

Programaren planteamendua astean 90 minutuko iraupena duten bi saiok osatzen dute hiru astetan zehar, denera 6 saio, elkartearen aretoaren batean. Horregatik, zure ikastetxera joan nahi nuke, zuzendaritza-taldeari programa aurkezteko, programa gauzatzeko dauden aukerak aztertzeko eta beharrezkoak diren baliabideak antolatzeko.

Edozein zalantza izanez gero, honako helbide elektroniko honetan kontsulta dezakezue: mbaro001@ikasle.ehu.eus

Zure erantzunaren zain. Agur bero bat.

Iturria: Eginkizun propioa.

2. Eranskina: Osasun Heziketa programaren posterra.



Argi ikusteko, nahikoa da begiradaren norabidea aldatzea.

HAURRETAN ANBLIOPIA ANTZEMATEA ETA ZUZENTZEAREN INGURUKO OSASUN HEZIKETA PROGRAMA



SARRERA

Anblioopia haurtzaroen ikusmen txarraren kausa ohikoena da, eta detekzio goiztiarra funtsezkoa da; izan ere, anblioopia oharkabean pasatzen bada edo tratatzen ez badute, anblioopia den begiko ikusmena ezin berrezartzea gerta liteke.

Osasun publikoko arazo garrantzitsua da, izan ere, anblioopiaren prebalentzia urteak igaro ahala, geroz eta altuagoa da.

HELBURUA

Gipuzkoako erizainak osasun heziketaren bidez haurretan anblioopia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea.

Pediatria eta oftalmologia arloan jarduten duten Gipuzkoako erizainei bideratua.



mbaro001@ikasle.ehu.eus



943 01 73 16



Donostia Unibertsitate Ospitalea
Begiristain Doktorea Pasealekua,
105, 20014 Donostia-San Sebastian,
Gipuzkoa

Eskuragarri: [https://drive.google.com/file/d/15t_By0GoyqflMa9nhrbOLghBz6t8V5_M/view?usp=share link](https://drive.google.com/file/d/15t_By0GoyqflMa9nhrbOLghBz6t8V5_M/view?usp=share_link)

Iturria: Eginkizun propioa.

3. Eranskina: Osasun Heziketa programaren triptikoa.

ZERTAN DATZA?

Anbliopia haurtzaroan ikusmen txarraren kausa ohikoena da, eta detekzio goiztiarra funtsezkoa da: izan ere, anbliopia oharkabean pasatzen bada edo bizitzako lehen sei urteak igaro ondoren tratatzen ez badute, anbiopie den begiko ikusmena ezin berrezartzeko gerta liteke. Osasun publikoko arazo garrantzitsua da, izan ere, anbiopiaren prebalentzia urteak igaro ahal, geroz eta altuagoa da. Beraz, beharrezkoa da honen detekzio goiztiarra betetzea, eta erizaintzak paper garrantzitsua du hemen, detekzioan asko lagun baitezake.

Helburua: Gipuzkoako erizainak osasun heziketaren bidez haurretan anbiopia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea.

Metodologia: proiektuan zehar erabili den informazioa eskuratzeko, bilaketa bibliografiko sistematizatua burutu da datu-base ezberdinetan, PIO egitura eta osasun-entzietako deskribatzaileak, MeSH, DeSH eta hitz-gakoak erabiliz.

Plangintza: programa honetan helburu pedagogiko eta programatutako jarduera batzuk planteatu dira, hezkuntza-edukiekin, estrategia metodologikoekin eta antolamendu, material eta giza baliabideekin, helburuak fortu nahian. Gainera, programaren egiturari, prozesuari eta emaitzei dagozkien ebaluazio-tresnak ere planifikatu dira.

NOR GARA GU?

Maialen Baro Babiano naiz, EHU-ko Erizaintza eta Medikuntza fakultateko laugarren mailako ikaslea.

943 01 73 16

Donostia Unibertsitate Ospitalea
Begiristain Doktorea Pasealekua, 105,
20014 Donostia-San Sebastian, Gipuzkoa

mbaro001@ikasle.ehu.eus

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

MEDEKUNTZA
ETA ERIZAINZAK
FAKULTATEA
FACULTAD DE MEDICINA
Y ENFERMERIA



ANBLIOPIA

HAURRETAN ANBLIOPIA ANTZEMATEA ETA ZUZENTZEAREN INGURUKO OSASUN HEZIKETA PROGRAMA.

Pediatría eta oftalmología arloan jarduten duten Gipuzkoako erizain bideratuak.



OME-ren arabera, erizaina da osasun-sistemaren eta pertsonen arteko lehen katebegia eta kontaktu-punturik sendoena, helburu nagusizat zerbitzuak behar dituzten biztanleei kalitatezko arreta eta zaintza eskaintzea duena, komunikazioaren, informazio teoriko-diziplinarraren erabileraren, komunitatearekiko baliabideen kudeaketaren eta beste instantzia batzuen bidez.

Ikusmen-desgaitasuna duen haurraren erizaintza-arreta erizaintzaren funtsezko erantzukizuna da ere, batez ere anbiopia garaiz detektatzen laguntzeko.



NON IZANGO DA?

GIPUZKOAKO ERIZAINZAK ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE ENFERMERIA DE GIPUZKOA

943 44 56 72

Calle del Maestro Santesteban, 2, 20011
San Sebastián-Donostia, Gipuzkoa

mbaro001@ikasle.ehu.eus



ARGI IKUSTEKO, NAHIKOA DA BEGIRADAREN NORABIDEA ALDATZEA



ANBLIOPIA

Anbliopia haurtzaroan ikusmen txarraren kausa ohikoena da, eta detekzio goiztiarra funtsezkoa da.

Osasun publikoko arazo garrantzitsua da mundu mailan haurren %2-5eko prebalentziagatik eta sortzen duen ikusmen-urritasuna bizitza osorako izan daitekeelako.



Eskuragarri: [https://drive.google.com/file/d/14HSiP9d-JpzJ07sR7FFJ4GhGqIvI-](https://drive.google.com/file/d/14HSiP9d-JpzJ07sR7FFJ4GhGqIvI-THG/view?usp=share_link)

[THG/view?usp=share_link](https://drive.google.com/file/d/14HSiP9d-JpzJ07sR7FFJ4GhGqIvI-THG/view?usp=share_link)

Iturria: Eginkizun propioa.

4. Eranskina: Osasun Heziketa programaren informazioa bidaltzeko mezu elektronikoa.

Osasun Heziketa programan parte hartzeko gonbidapena.

Gaia: Haurretan anblipia antzematea eta zuzentzearen inguruko Osasun Heziketa programa.

Nori zuzendua: **Erizainei.**

Sarrera: Anblipia haurtzaroan ikusmen txarraren kausa ohikoena da, eta detekzio goiztiarra funtsezkoa da; izan ere, anblipia oharkabean pasatzen bada edo bizitzako lehen sei urteak igaro ondoren tratatzen ez badute, anblipiope den begiko ikusmena ezin berrezartzea gerta liteke. Osasun publikoko arazo garrantzitsua da, izan ere, anblipiaren prebalentzia urteak igaro ahala, geroz eta altuagoa da. Beraz, beharrezkoa da honen detekzio goiztiarra betetzea, eta erizaintzak funtzio garrantzitsua du hemen, detekzioan asko lagun baitezake.

Helburua: Gipuzkoako erizainak osasun heziketaren bidez haurretan anblipia antzemateko eta zuzentzeko gai izatea.

Plangintza: Programa honetan helburu pedagogiko eta programatutako jarduera batzuk planteatu dira, hezkuntza-edukiekin, estrategia metodologikoekin eta antolamendu, material eta giza baliabideekin, helburuak lortu nahian. Gainera, programaren egiturari, prozesuari eta emaitzei dagozkien ebaluazio-tresnak ere planifikatu dira.

Edozein zalantza izatekotan, helbide elektronikoa honen bidez galdetu: mbaro001@ikasle.ehu.eus

Animatu zaitzete eta parte hartu Osasun Heziketa programa honetan!

Eskerrik asko.

Iturria: Eginkizun propioa.

5. Eranskina: Osasun Heziketa programan izen-emate zerrenda.

Izen-emate zerrenda			
Izen-abizenak	NAN zenbakia	Telefono zenbakia	Helbide elektronikoa

Iturria: Eginkizun propioa.

6. Eranskina: Osasun Heziketa programaren parte-hartzaileen baimen informatua.

BAIMEN INFORMATUA
<p>PARTE-HARTZAILEAREN DATUAK: Izen-abizenak: NAN zenbakia: Telefono zenbakia: Helbide elektronikoa:</p>
<p>PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA: Osasun Heziketa programa honek, anbliopia duten haurren prebalentzia jaisteko, anbliopiaren diagnostiko goiztiarraren eta tratamenduaren ezagutza jarrera eta gaitasunak lantzea du helburu. Horretarako, sei saioretan antolatuko da programa hau, bakoitzean anbliopiaren inguruko ezagutza lantzeko eta diagnostikorako eta tratamendurako beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeko. Osasun-profesional ezberdinek parte hartuko dute saio bakoitzean.</p> <p>Saioak egin aurretik, galdetegi bat bete beharko da anbliopiaren inguruko aurre ezagutza ebaluatzen. Galdetegi hori online bidezkoa izango da. Prestakuntza-saioretan zehar, azalpen eta demostrazio/simulakro bidez ezagutzak eta gaitasunak eskuratu dira. Proiektua amaitzean, proiektuaren egitura eta prozesua ebaluatzen eskatuko da online bidezko beste galdetegi baten bidez. Datu hauek</p>

erabiliak izango dira proiektua ebaluatzeko.

Osasun Heziketa programan parte hartzea borondatezkoa da, eta edozein unetan emandako baimena atzera bota dezake. Zure datuak erabiltzeko baimena ezeztatzeko, erreferentziako pertsonarekin harremanetan jar zaitezke eta baliogabetze hori proiektuaren edozein unetan eskatu ahal izango da. Azkenik, datu orokorren babesa Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera egingo da.

Behar bezala informatua izan naiz eta dokumentuaren edukia ulertzen dut, bertan egeri den informazioa eta baldintzak onartuz.

DATA:

SINADURA:

Iturria: Eginkizun propioa.

7. Eranskina: Osasun Heziketa programaren parte-hartzaileen konfidentzialtasun konpromezua.

KONFIDENTZIALTASUN KONPROMEZUA

Ni, _____, NAN zenbakia _____ duena, anbliopia inguruan sortu den Osasun Heziketa programan parte hartuko duena, konpromezua hartzen dut proiektuan zehar jasoko diren datuak babestera, beste parte-hartzaileen eta osasun profesionalen datuak babestera eta errespetuarekin jokatzeko, erabiliko diren materialak zaintzera eta lekua zaintzera, bertako arautegia errespetatuz eta betez.

DATA:

SINADURA:

Iturria: Eginkizun propioa.

8. Eranskina: Gaiaren inguruko ezagutzak eta gaitasunak identifikatzeko online galdetegia.

1. Galdetegia: Erizainen ezagutzaren eta gaitasunen ebaluazioa

1. Ba al dakizu zer den Anbliopia?
2. Zenbat anbliopia mota daude?
3. Zeintzuk dira anbliopiaren eragileak?
4. Zein adin-tarteri eragiten dio?
5. Nola identifikatu daiteke anbliopia arriskua?

6. Nola diagnostikatu daiteke?
7. Zein litzateke anblipiaren tratamendua?
8. Zein ondorio eman daitezke tratatzen ez bada?
9. Mediku-erizain errebisioak garrantzitsuak dira?

Eskuragarri:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdAJ6P_G-YsmYrm8dn8MXiFf6uCjF-v5PjZg3MfN59tTBd6Rw/viewform?usp=pp_url

Iturria: Eginkizun propioa.

9. Eranskina: Ebaluazio galdetegia.

2. galdetegia: Osasun Heziketa jaso ondoren, diana taldeak ezagutza eta trebetasun maila hobetu duten aztertzeko ebaluazioa.

1. Zure saioen bertaratzea honakoa izan da:
 - a. %0-24
 - b. %25-49
 - d. %50-74
 - e. %75-100
2. Baliagarriak egin zaizkizu egindako jarduerak?
 - a. Erabat
 - b. Nahiko
 - d. Apur bat
 - e. Ez
3. Aurreikusten ziren ekintza guztiak gauzatu dira?
 - a. Bai, denak
 - b. Ia denak
 - d. Erdiak
 - e. Erdiak baino gutxiago
4. Saioen helburuak eta edukiak parte-hartzaileen ezaugarrietara egokituak izan direla uste duzu?
 - a. Bai, beti
 - b. Gehienetan
 - d. Batzuetan

- e. Inoiz ez
5. Egunak, ordutegia eta iraupena egokiak iruditu zaizu?
- a. Denak egokiak
 - b. Horietako bat desegokia
 - d. Horietako bi desegokiak
 - e. Hiruak desegokiak
6. Desegokiak iruditu bazaizkizu, zure gomendioa jakinarazi:
- _____
7. Saioen antolamendua egokia iruditu zaizu?
- a. Bai
 - b. Gehiengoa bai
 - d. Gehiengoa ez
 - e. Ez
8. Egokia izan ahal da formakuntza jasotzeko lekua?
- a. Bai
 - b. Ez
9. Aurreko galdera ezezkoa izan bada, gehitu beste proposamen bat:
- _____
10. Ebaluatu ondorengo osasun agentearen jarduerak 1-etik 5-era (1 puntuazio minimoa eta 5 puntuazio maximoa izanik):
- a. Plataforma birtual egokiak erabili dira _____
 - b. Ikus-entzunezko egokiak aukeratu ditu _____
 - d. Gaiak argi azaldu ditu, hizkera ulergarrian _____
 - e. Zalantzak argitzeko prest dago _____
 - f. Saioetan zehar landutako ariketak egokiak izan dira _____
 - g. Gaitegia era antolatuan azaldu du _____
 - h. Taldearen iritziak kontuan izan ditu _____
 - i. Taldearen parte hartzea sustatu du _____

Eskuragarri:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfw6nHj0CZCRWFrP1ZnuS0WeiVtuJ3bU3xnz9qPRwK612f9ag/viewform?usp=pp_url

Iturria: Eginkizun propioa.